BOLUNTARIOTZAREN II. EUSKAL PLANA

2011-2012rako luzapena

BOLUNTARIOTZAREN II. EUSKAL PLANA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

BOLUNTARIOTZAREN II. EUSKAL PLANA

2011-2012rako luzapena

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Política Familiar y Comunitaria

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

Argitaraldia: 1.a, 2012ko martxoan

Ale-kopurua: 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Argitarazailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Maketazioa: EkipoPO

Iinprimatzea:

ISBN: 978-84-457-3237-3

L.G.: VI 186-2012

Hitzaurrea

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Luzapena duzu eskuan. Luzapen hori 2011ko abenduaren 27an onartu zen, Boluntariotzaren II. Euskal Planean (2008-2010) oinarrituta, haren ildo estrategikoak guztiz indarrean zirautelakoan.

Gobernu honen iritziz, garai hauek ez dira egokienak plan handiak diseinatzeko; aitzitik, konpromiso irmo eta eraginkorrak ezartzeko garaiak dira, sektoreko albait pertsona eta erakunde gehien inplikatzeko gai izan daitezen.

Arrazoi horrekin guztiz bat etorri da Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, boluntariotzaren arloko elkartze-, aholkularitza- eta kontsulta-organo gorena, zeinak kontsulta-prozesu bati ekin baitzion hainbat eragile publiko eta pribaturekin, 2008-2010eko II. Planaren garapenari buruz eta hori luzatzeko aukeraren egokitasunari buruz.

Horregatik, II. Planaren luzapenak partaidetza zabala izan du, hainbat eragilek esku hartu baitute: 2011. urtean Euskadin zeuden hiru bolutariotza-agentziek (Bolunta, Erdu eta Gizalde), hirugarren sektoreko 63 entitatek, Eusko Jaurlaritzako zazpi sailek, Emakundek, hiru foru-aldundiek, Eudelek, eta beste bost udalek (Bilbao, Donostia, Gasteiz, Ordizia eta Portugalete).

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren asmoa haren garapenean inplikaturiko eragile guztien arteko koordinazioa are gehiago erraztu eta sustatzea da, posible den heinean, elkarlanerako proposamenak eskainiz, parte-hartzaile bakoitzak planteaturikoez gainera.

Ekintzen jomugan dago boluntariotza-erakundeak indartzea —eragin-korragoak izan daitezen eta sare-lana indartu dezaten—, jarduera altruista horiek gizarte osoari ekartzen dizkioten onuren berri ematea eta, jakina, boluntariotzaren aldeko sentsibilitatea piztea, herritar guztiak gizarte-mugimendu horretan parte hartzera bultzatzeko.

Planean sartzen diren ekintzen artean, ondokoak nabarmendu litezke:

- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa.
- Unibertsitateko gazteei zuzendutako ekintza boluntarioari buruzko kanpaina bat egitea.
- Adinekoei zuzendutako kanpaina bat egitea boluntariotzari buruz.
- Boluntariotzaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko lurralde-jardunaldiak egitea.
- Boluntarioen ekintzari buruzko zabalkundea, erakundeen eta hirugarren sektorearen argitalpenetan artikuluak txertatuz.
- Boluntariotzaren Tourra.
- EAEko boluntariotzari eta Europako jardunbide egokiei buruzko azterlan bat egitea.
- Euskal Boluntariotza Agentziak bultzatzea eta indartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren boluntariotzari buruzko webgune bat sortzea.
- Estatuko XV. Boluntariotza Kongresua Euskadin egitea.

Guztira 114 ekimen izan dira, eta ia 24 milioi euroko aurrekontua izan dute (23.810.813 euro).

Ekimen horietako batzuk 2011. urtean gauzatu dira jada. Gainerakoak 2012. urtean egingo dira, eta urte horri amaiera berezia emango dio Estatuko XV. Boluntariotza Kongresuak.

Gure nahia Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Luzapenak baliabide bateratzailea izaten jarraitzea da, lurralde bakoitzean, egunero, boluntarioen ekintza bultzatuz, herritar aktiboak eta elkarren arteko laguntza sustatzeko etengabe lanean ari diren eragile guztientzat.

Gemma Zabaleta Areta
Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua

Aurkibidea

Aurkezpena 9

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren balantzea (2008-2010). 15
1. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren balioespen orokorra estrategia-arloan. . . 18
2. Erakunde arteko koordinazioaren garrantzia 18
3. Lidergo sendo baten premia 19
4. Boluntariotzaren II. Euskal Plana hedatzea. 19
5. EAEko boluntariotza-agentzien zeregina 20
6. Sentsibilizazio-ekintzak 20
7. Genero-ikuspegia eta teknologia berriak 21
8. Beste alderdi garrantzitsu batzuk. 21

Ekintza ildoak 23
1. Boluntarioak dituzten gizarte erakundeak eta horien sareak. 25
2. Boluntariotza agentziak 26
3. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua 27
4. Udalak eta bertako taldeak 27
5. Foru Aldundiak 28
6. Eusko Jaurlaritza 28
7. Beste eragile batzuk 30

Plan operatiboa (2011-2012). 31
1. Sarrera 33
2. Helburuak eta ekintza estrategikoak lehenestea 35

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren ildo estrategikoak, helburu orokorrak, berariazkoak eta ekintzak 39
1. ildo estrategikoa. Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa izango den herritartasuna eraikitzea. 41

2. ildo estrategikoa. Boluntariotzak etorkizunean izango dituen erronkei erantzuteko prestatuta egongo den elkarte-sare dinamikoaren garapena sustatzea. 57

3. ildo estrategikoa. Boluntariotza osatzen duten eragileak erabat koordinatzeko dauden boluntariotzaguneak eratu eta sustatzea. 74

Ebaluazio sistema 85

Eranskinak 91

I. eranskina. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren (2011-2012) dokumentuaren laburpen koadroak. 93

II. eranskina. Eragile parte-hartzaileen mapa. 103

III. eranskina. Metodologia. 106

Aurkezpena

Jarraian aurkeztuko dugun dokumentua Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Luzapena (2011-2012) da, hau da, II. Planaren jarraipena, eta dokumentu hori berriz indarrean jartzea du helburu orokor.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak bultzatu du dokumentua, eta hainbat eragileren parte-hartzea eta adostasuna izan du, eragile pribatuak (EAEko hirugarren sektoreko erakundeak eta boluntariotza-agentziak) nahiz publikoak (Udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza), horretarako martxan jarritako parte-hartze prozesuan lagunduz.

Dokumentua egitera eraman duten arrazoiak honako hauek dira: 2010ean Boluntariotzaren II. Euskal Planaren (2008-2010) indarraldia amaitu zen, eta horrek boluntariotzaren arloko eragile estrategikoen arteko hausnarketarako une bat ekarri zuen.

Eztabaida horren ondoren, eta *Boluntariotzaren II. Euskal Planaren egoerari buruzko Txostena*ren arabera, ondorioztatu zen II. Planean adierazitako ildo estrategikoek guztiz indarrean jarraitzen dutela, eta, beraz, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak beharrezkotzat jo zuen II. Planaren luzapena egitea. Ildo estrategikoak honako hauek dira:

1. *1. ildo estrategikoa: ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna eraikitzea.* Planaren ezinbesteko eginkizuna da elkartasunaren eta parte-hartzearen benetako kultura bat sustatzea, gizartearen eta ekintza boluntarioaren artean zuzeneko lotura bat finkatuko duena.

2. *2. ildo estrategikoa: boluntariotzak etorkizunean izango dituen erronkei erantzuteko prestatuta egongo den elkarte-sare dinamiko baten garapena sustatzea.* Irabazi-asmorik gabeko erakundeekiko harremanean lan egingo da, erakundearen eta boluntarioaren artean dagoen loturari buruzko prozesu guztiak babestuz. Era berean, erakundeak babestuko dira, horien iraunkortasunari, gardentasunari eta modernizazioari dagokienez.

3. *3. ildo estrategikoa: boluntariotza osatzen duten eragileak erabat koordinatzeko dauden boluntariotzaguneak eratu eta sustatzea.* Aurrera

egin nahi da benetako lankidetza-, harreman- eta komunikazio-sare bat eraikitzeari dagokionez, euskal jokalekuaren maila guztietan.

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren helburuak, beraz, bat baino gehiago dira:

Alde batetik, Boluntariotzaren II. Euskal Planean (2008-2010) gauzatu ezin izan ziren ekintzak berriz ere indarrean jartzea, eta hurrengo bi urteetan izango diren bi gertaera handiei buruzko ekintza guztiak biltzea. Bi ekintza horiek honako hauek dira: Boluntariotzaren Nazioarteko Urtea (2011) eta Estatuko Boluntariotza Kongresua (2012), EAEn egingo dena.

Bestalde, inplikaturiko eragileen koordinazioa erraztu nahi da, hau da, administrazio publikoen inplikazioa nahiz hirugarren sektoreko erakundeena, EAEko boluntariotza-agentziak ahaztu gabe, eta horietako bakoitzarentzat jarduteko orientazio edo proposamen batzuk ezarriz.

Ikuspegi horretatik, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenak (2011-2012) II. Planean jada aurreikusita dauden eta oraindik indarra duten ekintzak biltzen ditu, baita hurrengo bi urteetarako ekintzak ere; izan ere, aldi horretan boluntariotzaren arloko oso gertaera garrantzitsu batzuk izango dira. Hala ere, garrantzitsua da argitzea dokumentu honetan ez direla jasotzen inplikaturiko eragile guztien bitartez EAEn martxan jartzen diren boluntariotza-ekintza guztiak. Era berean, bildutako ekintza guztiek ere ez dute garrantzi berbera.

Jarraian, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapen hau osatzen duten atal guztiak aurkeztuko ditugu:

Lehenik, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren (2008-2010) balantzearekin lotuta egin den landa-lanaren bitartez lortutako informazioaren laburpena gaineratu da, prozesuan parte hartu duten eragileek II. Planari buruz egindako balioespenak –positiboak eta negatiboak– biltzen dituena. II. Planaren ebaluazio horretan oinarrituta, hobekuntza-elementu batzuk gaineratu dira.

Ondoren, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren diseinuan eta garapenean inplikaturiko eragile bakoitzarentzako jardun-ildo batzuk proposatzen dira, eta bertan hainbat iradokizun gaineratzen dira erakunde publikoek eta pribatuek boluntariotzaren inguruan beteko luketen zereginari buruz.

2011. eta 2012. urteetarako Plan Operatiboak barnean hartzen ditu Boluntariotzaren II. Euskal Planean jada proposatutako eta II.

Planaren luzapenaren bi urteetarako indarrean jarraitzen duten hiru ildo estrategikoak, baita ildo bakoitzaren berariazko helburuak eta 2011. eta 2012. urteetarako ekintza berriak ere.

Amaitzeko, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenerako (2011-2012) ebaluazio-sistema bat proposatzen da, II. Planean proposatutakoaren antzekoa eta, hainbat arrazoirengatik, bere garaian gauzatu ezin izan zena.

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren balantzea

(2008-2010)

Boluntariotzaren II. Euskal Plana (2008-2010) bi legegintzaldiren artean planteatu zen, gaiaren politizazioa saihesteko helburu argiarekin, eta ekintza eta argibide kopuru handia duen dokumentu gisa eratu zen. Hala ere, hasiera-hasieratik, II. Plana nolabaiteko urruntasunarekin ikusi zuten hirugarren sektoreko erakundeek, eta ez zuen lidergorik, koordinaziorik eta dinamizaziorik izan. Horren ildotik, gizarte-erakundeen iritziz, Administrazio Publikoek ez zuten inplikazio nahikoa izan II. Planaren ekintzetan, eta parte-hartze urria izan zuten Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan.

Horrek, gobernua aldatzearekin eta horren ondorioz eskumenak berrego-kitzearekin batera, II. Plan ez oso dinamikoa eta erabilgarria sortu zuen aurreikusitako ekintzen garapenari dagokionez. Eragile batzuk izan ezik, hala nola boluntariotza-agentziak (Erdu, Bolunta eta Gizalde), oso gutxi dira II. Planean bildutako ekintzak garatu dituztenak; horrek honako ondorio hauek izan ditu hirugarren sektoreko elkarteentzat nahiz administrazio publikoentzat:

Lehenengo kasuan, lurraldetasun nabaria gertatu da bestelako elkarteekin alderatuta, eta erakundeekiko nolabaiteko mesfidantza.

Bigarren kasuan, administrazioarentzako ondorio nagusia izan da bolunta-riotzaren errealitatea ez ezagutzea, eta EAEn lan egiten duten elkarteek ideia bateraturik ez izatea.

Bestalde, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren (2008-2010) egoerari buruzko txostenak ondorio orokor eta oso garrantzitsu batzuk eman zituen, azpimarratzekoak direnak –laburbilduta–, aurreikusitako ekintzen betearazpen-maila oso txikia izatea justifikatzen baitute:

1. Boluntariotzaren II. Euskal Plana garatzen ari zenean, lidergorik gabeko aldi bat izan zen, aurreko legegintzaldiaren amaieran nahiz oraingo legegintzaldiaren hasieran. Era berean, aldi horietan jarduera ez gelditzeaz arduratu behar zuten erakunde iraunkorrek ez zuten biderik aurkitu horren garapena bultzatzeko. Hortaz, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua EAEn ekintza boluntarioaren elementu dinamizatzaile izateko premia ikusten da.

2. 2008an onartutako Plan Operatiboaren asmoa zen hasierako argazki bat izatea, urteetan zehar osatu beharko zena. Hala ere, lan hori ezin izan zen egin, eta, beraz, bigarren Plana ezartzeko aldian landu behar ziren berariazko helburuak edukiz eskas geratu dira.

3. Era berean, eragileetako askok ez dituzte bete Planarekin funtsezko hainbat helbururen inguruan hartutako konpromisoak.
4. Azkenik, Planaren ebaluagarritasuna ere kontuan hartu behar da, 5. atalean –Ebaluazio Sistema– aurreikusitako ekintzen jarraipenaren urteko txostenak ez zirelako egin.

Testuaren balioespenari dagokionez, lortutako diagnostikoaren informazioa hainbat gai-arlotan banatu da; honako hauek dira:

1. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren balioespen orokorra estrategia-arloan

Boluntariotzaren II. Euskal Plana boluntariotzarako erreferentziazko lege-esparru komun bat (erregulazio bat) dela eta EAEko boluntarioen errealitatearen diagnostiko bat egiten duela hartzen da oinarritzat. Horrela, Planak boluntariotzan oinarritutako elkarte-sare bat egituratzeko oinarriak ezartzen ditu, eta erreferente bat da boluntarioak dituzten erakundeentzat.

Azken batean, talde boluntarioen gizarte-errealitatera eta premietara egokitutako esparru egokiago bat eskaintzeko ezinbesteko dokumentu positibo gisa ikusten da.

Horretaz gain, Plana arlo horretako aurrerapen instituzionalaren adierazle argitzat jotzen da, eta horren asmoa eta orientazioa balioesten da. Boluntariotzaren II. Euskal Plana Eusko Jaurlaritzaren konpromiso gisa balioesten da, parte-hartze sozialeko forma horien laguntzarekin eta sustapenarekin, baita gizarte zibilaren elkartasun eta antolamendu forma berrietara egokitzeko ahalegin gisa ere.

Bestalde, Plan handinahia eta konplexua da, ekintzan oso sartua. Metodologikoki oso baliozkoa da, baina ez oso estrategikoa, ibilbide-orri komun bat falta baitzen eragileentzako lehentasunezko zeharkako erronka batzuekin.

2. Erakunde arteko koordinazioaren garrantzia

Modu positiboan balioesten da Boluntariotzaren II. Euskal Plana eragileek adostutako dokumentu bat dela. Horretaz gain, inplikaturiko sektoreen arteko elkarreragina erraztu du. Era berean, eragileen arteko harremana indartzeko lana egin da, ekintza boluntarioa eguneratzeko eta ahaleginen bikoiztasuna txikiagotzeko.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da inplikaturiko eragileen arteko komunikazioa neurri handiagoan zabaltzea, hirugarren sektoreko erakundeen eta Administrazio Publikoaren arteko harremana handitu eta hobetzeko lan eginez,

baita boluntariotza-agentzien eta administrazioen arteko harreman-esparrua argitzeko ere.

Halaber, gizarte-erakundeek beharrezkotzat jotzen dute elkarte-sarea osatzen duten eragileen artikulazioa hobetzea, boluntariotza sustatzen duten erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak ezarriz eta/edo hobetuz, mezu komun bat landu eta adoste aldera. Oro har, erakunde arteko koordinazioaren hobekuntzan lan egin nahi da, elkarren arteko loturak eta lankidetza erraztuz.

Horren ildotik, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenean aurreikusitako ekintzen zeharkako eta sailen arteko ildoak sustatzea ere gomendatzen da, baita eragile bakoitzaren helburuak eta lehentasunak argi eta garbi zehaztea ere.

3. Lidergo sendo baten premia

Prozesuan parte hartzen duten erakunde publiko eta pribatuen iritziz, azpimarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da Boluntariotzaren II. Euskal Planak ez duela lidergo sendorik izan konpromisoak bateratzeko eta ekintzen betearazpena bermatzeko.

Ikuspegi horretan oinarrituta, Planaren parte-hartzean oinarritutako lidergo proaktibo bat behar dela ikusten da, arlo horretan eskumena duen sailaren esku, edo, horren ordez, izendatutako pertsona baten esku, adostutako ekintzak betetzen direla zaintzeko berariazko betebeharrarekin eta korapiloak askatzeko eta protagonismo ez-emankorrak desagerrarazteko gaitasunarekin.

Horren ildotik, era berean, oso garrantzitsua da boluntariotzaren arloan ezagutza duten eta tokiko eremuan ekintza boluntarioa zentralizatu eta dinamizatzen duten udal-mailako figurak izatea.

4. Boluntariotzaren II. Euskal Plana hedatzea

Prozesuan parte hartzen duten erakunde pribatuek nahiz publikoek uste dute Boluntariotzaren II. Euskal Planak hedapen, ondorio eta garrantzi eskasa izan duela gizartean, boluntarioengan, hirugarren sektoreko erakundeetan eta, azkenik, Administrazio Publikoetan.

II. Planaren ezagutzan ikusitako defizita informazioaren komunikazio- eta hedapen-arazo bati egotzi zaio, baita EAEko gizarte-eragileek benetako inplikaziorik ez izateari ere.

Ikuspegi horretan oinarrituta, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren hedapen eta komunikazio handia behar da, baita Boluntariotzaren Europako Urtearekin eta Boluntariotzaren Estatuko Kongresuarekin lotuta egingo diren ekintza zehatzena ere. Gainera, komunikazio horrek aukera emango du Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egindako lana erakundeei eta boluntarioei hurbiltzeko, parte hartzeko mekanismoak ezarriz.

Era berean, lan handiagoa egin behar da Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ezagutarazteko, baita Kontseiluak berak ezarritako ekintzak hedatzeko lan handiagoa ere.

5. EAEko boluntariotza-agentzien zeregina

Kontsultatutako eragile guztiak ados daude EAEko boluntariotza-agentzia guztiek subjektu estrategikoak izan behar dutela Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren diseinuan eta garapenean. Horren ildotik, gomendatzen da boluntariotzaren inguruko lana hiru agentzietan (Erdu, Bolunta eta Gizalde) zentralizatzea, eta Administrazio Publikoek laguntzea eta horien lana indartzea. Horretaz gain, zehazkiago, hiru boluntariotza-agentzien arteko garapen orekatuagoa proposatzen da.

Ildo horretan, boluntarioak erakartzeari, gizarte-sentsibilizazioari eta informazio- eta zabalkunde-lanari dagokionez EAEko boluntariotza-agentziek egiten duten lana azpimarra daiteke. Hala ere, egia bada ere Boluntariotzaren II. Euskal Planak indar handiagoa eman diela agentzia horiei, eta sentsibilizazioa eta erakartzea indartzeko gako elementutzat jotzen badira ere, ezinbestekoa da arlo horietan lana bultzatzen jarraitzea.

6. Sentsibilizazio-ekintzak

EAEko gizarte-erakundeen iritziz, garrantzitsua da, era berean, biztanleria guztiaren sentsibilizazioaren alde lan egiten jarraitzea, eta ekintza boluntarioari balioa ematea, hau da, boluntariotzaren balioen gizarte-onarpena indartzea.

Halaber, boluntariotzaren kultura eta parte-hartzea sustatzea gomendatzen da, boluntarioek hirugarren sektoreko erakundeen eta gizartearen arteko egituraketan bideratzaile gisa egiten duten lana balioetsiz, eta herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea indartzeko estrategia koordinatuak ezarriz.

Horretaz gain, sentsibilizazio-lan horrek hezkuntzarekin lotuta egon behar du, boluntariotzaren sustapen-estrategia gisa, adin goiztiarrenetatik parte-hartzean oinarritutako herritarren kultura solidario batean hezteko premia azpimarratuz (sentsibilizazioaren pedagogia).

7. Genero-ikuspegia eta teknologia berriak

Boluntariotzari lotutako lanean kontuan hartu beharreko beste elementu bat genero-ikuspegia da, mainstreaminga txertatuz arlo horretan gizarte-erakundeek nahiz Administrazio Publikoek garatzen dituzten prozesu, lan eta ekintza guztietan.

Araudiari dagokionez, ekintza boluntarioaren eta lan- eta familia-bizitzaren arteko bateragarritasuna bermatzeko legezko neurriak bultzatu nahi dira, batez ere teknologia berrietan oinarritutako herritarrentzako atarien bitartez.

IKTei dagokienez, gizarte-sareek eskaintzen dituzten aukerak ere aprobetxatu nahi dira, herritarren koordinazioa, informazioa eta parte-hartzea errazteko nahiz elkarteen kudeaketa bera hobetzeko (barne-kudeaketa, dinamizazioa, komunikazioa, eta abar).

8. Beste alderdi garrantzitsu batzuk

Hirugarren sektoreko erakundeak boluntarioentzako prestakuntza-baliabide orokorren garrantziari buruz kontzientziatzea gomendatzen da, eta boluntarioek boluntario gisa lortutako esperientziatik albait etekin handiena atera dezaten erraztu eta bultzatzea. Azken batean, boluntarioen prestakuntza indartu nahi da, horien lanaren kalitatea handitzeko aukera ematearren.

Era berean, ezinbestekoa da boluntariotzaren errealitateari buruzko ikerketa bat egitea, EAEko boluntarioen egoera argi eta garbi azalduz. Horretaz gain, azterlan horretan boluntariotzaren arloko jardunbide egokiak identifika litezke.

Azkenik, Administrazio Publikoek boluntariotzara bideratzen duten aurrekontua ez da nahikotzat jotzen gizarte-erakundeetan, eta, beraz, prestakuntzarako eta berrikuntzarako aukerak mugatuak izan dira batzuetan. Horregatik, benetako inplikazioa eskatzen da, berariazko partida ekonomikoekin.

Diagnostiko hori aurkeztu ondoren, eta diagnostiko horren ondorioz, garrantzitsutzat jo da honako norabide hauetan pausoak ematea:

1.1. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua dinamizatzea, EAEn boluntariotzaren arloko benetako erreferente bat bihurtzearren.

2. EAEko boluntariotza-agentziak indartzea (Erdu, Bolunta eta Gizalde).

3. Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak berariazko ekintzak ezartzea, 2011ko eta 2012ko gertaera handietarako orokorrak nahiz zehatzak.

4. Tokiko mailan lan egitea, udal-mailan benetako trakzio-eragile gisa egituratzen diren boluntariotzaren arloko ekintzak zentralizatzen dituzten figurak identifikatzeko helburuarekin.

Ekintza ildoak

Hurrengo atalean, orientazio eta/edo gomendio batzuk emango ditugu boluntariotzaren arloan estrategiko gisa identifikatutako eragile bakoitzarentzat, horietako bakoitzak betetzen duen zeregina eta horien arteko koordinazioa argitzeko helburuarekin.

Identifikatutako eragileak honako hauek dira:

- Boluntarioak dituzten gizarte-erakundeak eta horien sareak
- Boluntariotza-agentziak
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
- Udalak eta bertako taldeak
- Foru Aldundiak
- Eusko Jaurlaritza
- Beste eragile batzuk

1. Boluntarioak dituzten gizarte erakundeak eta horien sareak

Kontsultatutako hirugarren sektoreko erakunde gehienek uste dute Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren (2011-2012) garapenean betetzen duten zereginak aktiboa eta erabakigarria izan behar duela. Garatu beharreko zeregin zehatzak zeintzuk diren identifikatzeko arazo batzuk agertu badira ere, zeregin batzuk aipa daitezke:

Lehenik, modu berezian azpimarratzen da boluntariotzari lotutako hedapen, sentsibilizazio eta erakartzearekin zerikusia duen guztia. Hau da, boluntariotza euskal gizartean sustatzen jarraitu nahi da, eta, horretarako, sentsibilizazio eta motibazioko estrategia berritzaileak ahalbidetu beharko dira. Horretaz gain, ezinbestekoa izango da estrategia erakargarriak izatea, eta gizarte-erakundeetan sartzen diren boluntarioentzako egokiak diren topaketarako gune goxoak sortzea. Azken batean, EAEko gizarte-erakundeek zeregin aktibo bat aldarrikatzen dute herritartasun parte-hartzaile eta solidario baten eraikuntzan.

Bestalde, gizarte-erakundeen eta horietako boluntarioen arteko komunikazioa hobetu nahi da, boluntarioak erakundean jarraitzea bultzatzeko eta eskainitako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Askotan errepikatzen den beste elementu bat boluntarioen prestakuntza da.

EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeek azpimarratu dute funtsezko zeregina betetzen dutela erakundeko boluntarioei emandako prestakuntzan. Ezinbestekoa da prestakuntzaren bitartez boluntarioak prestatzea. Horren ildotik, erakundeekin egiten den lana gako-elementuetako bat da, boluntarioekin zuzeneko harremana dutenak direlako. Ikuspegi horretatik, erakundeek uste dute boluntarioentzako berariazko prestakuntza erakundeek berek eman behar dutela.

Era berean, gizarte-erakundeek zeregin garrantzitsua bete dezakete euskal gizartearen eskaeren, kezken eta premien etengabeko identifikazioari dagokionez, laguntzak proposatzeko lanean zeregin aktiboa hartuz.

Era berean, EAEko gizarte-erakundeek boluntariotzaren benetako egoeraren diagnostiko-azterlan baten protagonistak eta parte-hartzaileak izan nahi dute, diagnostikoa egiteko behar diren datuak eta estatistikak emanez.

Kontsultatutako gizarte-erakundeetako batzuek adierazi duten alderdi oso garrantzitsu bat Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapena (2011-2012) erakundeko boluntarioen artean hedatzeko betetzen duten zeregina da.

Amaitzeko, euskal boluntariotza dinamizatzen duten gizarte-erakundeek Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren (2011-2012) kontsulta, jarraipen, zabalpen eta ebaluazioko zeregina bete behar dutela planteatzen dute.

2. Boluntariotza agentziak

Oso garrantzitsua da ekintza boluntarioan bildutako eragileak argi eta garbi ikustea, boluntarioei eta boluntariotza-agentziei lehentasuna emanez, hartzaile gisa eta subjektu aktibo gisa. Kontsultatutako eragile guztien eskaera bat da boluntariotzari lotutako lana eta Boluntariotzaren II. Euskal Planaren garapena EAEko hiru boluntariotza-agentzietan zentralizatzea (Bolunta, Gizalde eta Erdu), administrazio publikoen laguntzarekin.

2011n eta 2012an izango diren gertaeren garrantzia kontuan hartuta, proposatzen da EAEko boluntariotza-agentziek gizarte-erakundeekiko eta herritarrekiko hurbiltasunean lan egitea, lehentasunezko honako bi helburu hauekin: Hirugarren sektoreko erakundeak ahalduntzea, eta ingurunearekin kritikoa eta aktiboa izango den herritartasun baten sorreran lan egitea.

Azkenik, EAEko boluntariotza-agentzien eta tokiko administrazioen arteko harremana eta lana garatzea gomendatzen da.

3. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenean bildutako ekintzak behar bezala garatzeko gakoetako bat da Boluntariotzaren Euskal Kontseilu dinamikoa eta parte-hartzailea edukitzea. Horretarako, proposatzen da bide-orri komun batetik abiatzea eta lidergo indartsu bat edukitzea, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak gauzatua, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren bitartez. Zehazki, lidergoa Kontseiluaren kudeaketa eta dinamizazio etengabean ere gauza daiteke, eremu hori indartuta eta zainduta.

Horrela, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ideiak, premiak, zalantzak eta kezkak adierazteko benetako truke-foro gisa ikusi eta biziko da. Hortik abiatuta, Kontseiluak lehentasunak identifikatuko ditu, kezka horien inguruan jarduteko moduari buruz EAEko gizarte-erakundeei orientatzeko gomendioak eta jardun-proposamenak emanez.

Horregatik, garrantzitsua da Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak zeregin aktiboa betetzea Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapen honetan aurreikusitako ekintza batzuk bideratzeko unean, hala nola Estatuko Boluntariotza Kongresua (2012) bideratzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren lidergoarekin.

Azkenik, egin beharreko funtsezko hausnarketa-elementu bat da “boluntariotzaren” eta herritarren parte-hartzearen definizio komun eta partekatu batean aurrera egitea, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren lan-batzordeen esparruan. Era berean, oso garrantzitsua da Kontseiluaren esparruan ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren errealitate, bilakaera eta erronken inguruan eztabaidatzea eta horiek aztertu eta sakontzea.

4. Udalak eta bertako taldeak

Tokiko administrazioak benetako lotunea dira gizartearen eta udaleko elkarteen artean, boluntariotzaren sustapenera, elkarte-sarea bultzatzera eta herritarren parte-hartzera bideratutako ekintzak susta baititzakete.

Ikuspegi horretatik, EAEko udalek eta bertako taldeek zeregin garrantzitsua bete dezakete tokiko parte-hartze prozesuen dinamizatzaile eta sustatzaile gisa, parte-hartzeari eta boluntariotzari buruzko arloetan aholkuak emanez. Horretarako, udal-erakundeetan boluntariotzari buruzko ezagutza duten trakzio-eragile argiak identifikatzea gomendatzen da.

Udalentzat eta bertako taldeentzat, lehentasunezko honako ekintza-ildo hauek proposatzen dira:

1. Boluntariotza-proiektuak tokiko mailan nabarmentzea babestea, ekimen horietan herritarren inplikazio handiagoa bilatuz, informazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez.
2. Elkarte-sarea eta sareko lanaren artikulazioa indartzea. Prestakuntzaren hobekuntzan lan egin nahi da boluntariotzako proiektuen eta erakundeen barneko eta kanpoko kudeaketa hobetzeko tresna gisa, Udalaren eta elkarte-sarearen artean, alde batetik, eta elkarte-sarearen beraren artean, bestetik, lankidetza-estrategiak eratzea sustatuz.
3. Boluntariotzari gizarte-onarpena ematea, gizarte-kohesioari egiten dion ekarpena balioetsita, eta boluntariotzaren mezua eta balioak mantenduz gizartean.
4. Tokiko irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea diru-laguntzen bitartez, hitzarmenen bitartez, lokalak lagatzearen bitartez eta abar.

5. Foru Aldundiak

Asmoa da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek hiru lurralde historikoetako boluntariotza-agentziak (Bolunta, Gizalde eta Erdu) babesten, sustatzen eta indartzen jarraitzea, lankidetza-hitzarmenen bitartez, boluntariotzaren arloan egiten duten lana indartzeko helburuarekin.

Era berean, irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzeko lanarekin jarrai daiteke beren jarduerak finantzatuta, arlo horretan eskumena duten Sailen bitartez, hain zuzen ere hiru lurraldeetako GKEen bitartez ekintza eta parte-hartze boluntarioa indartzeko helburuarekin.

Halaber, garrantzitsua da boluntariotzak foru-aldundientzako zeharkako lan-arlo gisa jarraitzea, parte-hartzearekin lotutako ekintzez arduratutako langile espezifikoekin.

Amaitzeko, proposatu da Aldundiek Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ordezkaritza eta parte-hartzea gauzatzen jarraitzea, baita Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenean jasotzen diren ekintzak bultzatzen jarraitzea ere.

6. Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren sailek zeregin aktiboa betetzen dute Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kide gisa. Horretaz gain, subjektu estrategikoak dira Bo-

luntariotzaren II. Euskal Planaren luzapen honetan bildutako ekintza batzuei eusteko eta jarraitutasuna emateko unean.

Era berean, Eusko Jaurlaritza protagonista izan daiteke ekintza boluntarioaren balioak hedatzeari dagokionez, EAEko biztanleria hainbat eremutatik parte-hartzera animatuz: gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, lankidetza, kultura, komunitate-garapena, ingurumena eta abar.

Horren ildotik, funtsezkoa da Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenean bildutako berariazko jarduerak bultzatzea, baita Boluntariotzaren Europako Urtearen eta Estatuko Boluntariotza Kongresuaren ospakizuna hedatzea ere, ekintza boluntarioaren aitorpenean eta herritartasun aktibo baten sustapenean lagunduz.

Era berean, boluntariotza-erakundeek eremu horretan Eusko Jaurlaritzaren sailek garatu eta ezartzen dituzten prestakuntza-programak ezagutzea eta horietan sartzea bultza daiteke.

Halaber, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kide diren Eusko Jaurlaritzako sailetako bakoitzean boluntariotzaren eremua benetan eta sakonki ezagutzen duen norbait izateko premia ikusi da, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzarekin koordinatuta.

Bestalde, garrantzitsua da adieraztea zeintzuk diren Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren eskumeneko eginkizunak, hori baita boluntariotzaren arloko organo arduraduna:

- Boluntariotzako erakundeen Errolda Orokorra kudeatu eta antolatzea.
- Boluntariotzaren baliabideen katalogo publiko bat eratzea; Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen diren programen edukia bilduko du.
- Boluntariotzari buruzko dokumentu-fondo bat eta datu-base bat sortzea, dauden fondo guztiak koordinatzeko.
- Boluntariotzako proiektu jakin bat egiten duten erakundeek eskatzen duten beharrezko aholkularitza teknikoa eta lankidetza ematea.
- Boluntariotzako elkarteen parte-hartzea babestu eta sustatzea Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren bitartez: adierazitako kontseiluaren lidergoa eta animazioa Boluntariotzaren Euskal Planaren ezarpenean eta Zuzendaritzaren ardura duten ekintzetan, gainerako Sailek gai hori beren gain hartzea sustatzeaz gain.

7. Beste eragile batzuk

Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak boluntariotzari lotutako ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa dauka; honako hauek biltzen dituzte ekintza horiek:

- Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzari aholkularitza teknikoa ematea genero-ikuspegia txertatzeko Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenaren diseinuan eta garapenean, baita horren inguruan egiten diren diagnostikoetan eta azterlanetan ere.
- Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapena ezartzeko behar diren lankidetza eta koordinazioko jardunetan parte-hartzea.
- Emakunderen ardurapeko jardunak egikaritzea.

Plan Operatiboa
(2011-2012)

1. Sarrera

Atal honetan, finkatutako ildo estrategikoak eta helburuak betetzeko ezarriko diren ekintzak biltzen dira, definitutako lehentasun garrantzitsuenei jarraiki. Plan Operatibo horretan, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapena (2011-2012) idazteko parte-hartze prozesuan proposatutako ekintza berriak eta Boluntariotzaren II. Euskal Planean (2008-2010) oraindik indarrean dauden ekintzak bildu dira.

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenak egitura berarekin jarraitzen du, hau da, hiru ildo estrategiko, hiru helburu orokor eta berariazko hamabi helburu, baita 114 ekintza ere. Horren ildotik, azpimarratu behar da luzapenaren dokumentu honek ekintza kopuru handi bat biltzen duela berriz ere, baina guztiek ez dute garrantzi berbera. Era berean, gogoratu behar da EAEn gauzatzen diren boluntariotzaren arloko ekintza guztiak ez direla luzapenean jaso.

Halaber, horiek gauzatzeaz arduratuko diren eragileak zeintzuk izango diren adierazten da, baita zein eragile izango diren laguntzaileak, ekintzetako bakoitza noiz egin behar den, eta, hala badagokio, horientzat esleitutako aurrekontua ere.

Parte hartzen duten eragileei dagokienez, oso modu positiboan balioesten da dokumentua egitean inplikatutako lagun guztien parte-hartze handia, baita Boluntariotzaren II. Euskal Planean (2008-2010) parte-hartzaile ez diren eragile berriak sartu izana ere.

Ildo estrategikoa	Helburu orokorrak	Berariazko helburuak
Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna eraikitzea	• Sentsibilizazioa • Erakartzea • Ikerketa	Gazteen sentsibilizazioa eta boluntarioen erakarpena sustatzea EAEko hezkuntza-eremuetan
		Boluntarioen sentsibilizazioa eta erakarpena sustatzea, gizartean eta boluntariotzarekin zerikusia duten eragileengan
		Sentsibilizazioa, boluntarioen erakarpena eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta enpresen arteko harremana sustatzea, enpresa-boluntariotzaren bitartez
		EAEko boluntariotzaren egoeraren benetako ezagutza eta ikerketa sustatzea
Boluntariotzak etorkizunean izango dituen erronkei erantzuteko prestatuta egongo den elkartesare dinamiko baten garapena sustatzea	• Laguntza eta sustapena	Boluntarioek irabazi-asmorik gabeko erakundeen barruan betetzen duten zeregina finkatzeko laguntza ematea, ekintza boluntarioaren kalitatea hobetzea lortzeko helburuarekin
		Laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea, iraunkortasuna eta gardentasuna hobetzearren, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen antolamenduaren modernizazioan aurrera egitearren
		Boluntarioei laguntza ematea prestakuntza-prozesu guztietan
		Irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntza ematea prestakuntza-prozesu guztietan
Boluntariotza osatzen duten eragileak erabat koordinatzeko dauden boluntariotzaguneak eratu eta sustatzea	• Koordinazioa	Koordinazioaren kultura eta dagoen esparrua sustatzea boluntariotzaren arloko elementu erregulatzaile eta egituratzaile gisa
		Dauden egiturak bultzatu eta indartzea eta egitura berriak sortzea, boluntariotzaren arloko EAEko, Estatuko eta Europako eragile guztiak harremanetan jartzeko
		Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTak) erabilera sustatu eta babestea, boluntariotzaren inguruko koordinazio-prozesuen egituratzaile gisa
		Administrazio mailan koordinazio-prozesuak hobetzea, boluntariotzaren sustapenaren aldeko sinergiak sortzeko eta, era horretan, ahaleginen bikoiztasuna saihesteko helburuarekin

2. Helburuak eta ekintza estrategikoak lehenestea

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapena lantzeko martxan jarritako parte-hartze prozesuaren bitartez kontsultatutako eragileek Plana osatzen duten berariazko 12 helburuak lehenetsi dituzte. Helburu horiek 114 ekintza biltzen dituzte.

Jarraian, berariazko helburuak adieraziko ditugu lehentasun-ordenaren arabera, betiere luzapen hau idaztean parte hartu duten eragile guztiei helburuak lehenestea eskatu ondoren.[1]

Ordena	Berariazko helburua	Puntuazioa	Ekintza kopurua
1	Boluntarioek irabazi-asmorik gabeko erakundeen barruan betetzen duten zeregina finkatzeko laguntza ematea, ekintza boluntarioaren kalitatea hobetzea lortzeko helburuarekin	54	6
2	Boluntarioen sentsibilizazioa eta erakarpena sustatzea, gizartean eta boluntariotzarekin zerikusia duten eragileengan	53	29
3	Laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea, iraunkortasuna eta gardentasuna hobetzearren, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen antolamenduaren modernizazioan aurrera egitearren	49	36
4	Gazteen sentsibilizazioa eta boluntarioen erakarpena sustatzea EAEko hezkuntza-eremuetan	45	4
5	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntza ematea prestakuntza-prozesu guztietan	37	3
6	Koordinazio-prozesuak administrazio-mailan hobetzea, boluntariotzaren sustapenaren aldeko sinergiak sortzeko eta, horren bidez, ahaleginen bikoiztasuna saihesteko	35	3
7	Boluntarioei laguntza ematea prestakuntza-prozesu guztietan	31	3

/...

[1]Garrantzi berbera eman zaie parte hartu duten erakunde publiko eta pribatu guztiei.

...//

Ordena	Berariazko helburua	Puntuazioa	Ekintza kopurua
8	Dauden egiturak bultzatu eta indartzea eta egitura berriak sortzea, boluntariotzaren arloko EAEko, Estatuko eta Europako eragile guztiak harremanetan jartzeko	28	12
9	Sentsibilizazioa, boluntarioen erakarpena eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta enpresen arteko harremana sustatzea, enpresa-boluntariotzaren bitartez	24	0
